
#astekonomia

Urriaren 26tik 30era bitarteko astea


Etxebizitzen salmenta %4,8 hazi zen abuztuan



Iturria: INE.

INEk argitaratu dituen datuen arabera, **abuztuan Euskadin saldutako etxebizitza kopurua %4,8 hazi zen aurreko urteko hil berarekin alderatuta.** Zehazki, 1.917 etxebizitza saldu ziren. Maiatzetik beherakadak izan ondoren, etxebizitzen salmentak gora egin zuen berriro abuztuan. Urteko lehen zortzi hilabeteetan, etxebizitzen salmenta %3,2 jaitsi zen urte batetik bestera, 2025 bereziki on baten ondoren.

Hipotekek behera egin dute abuzturarte



Iturria: INE.


INEren datuen arabera, **2026ko urtarriletik abuztura 15.415 etxebizitza hipoteka sinatu ziren, aurreko urteko aldi berean baino %4,9 gutxiago.** Kopuruak behera egin badu ere, azken hamar urteetako erregistrorik onenetako bat da. Aldiz, mailegatutako kapitala %4,0 hazi zen.

Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila

#astekonomia

Urriaren 26tik 30era
bitarteko astea


Eraikuntzaren kostuak %8,0 hazi ziren



Irailean, eraikuntzaren kostuak %8,0 igo ziren urte artean Euskadin, urteko tasarik handienera iritsiz eta martxotik izandako bizkortzea luzatuz. Lehengaiak (%9,2) lan eskua (eskulana) (%4,7) baino gehiago garestitu ziren, energía kostuen gaineko presioen testuinguruan. Sektoreka, kostuek gora egin zuten bai obra zibilean (%7,7) bai eraikuntzan (%8,0).

Iturria: Eustat.

Azalera handietako salmentak %1,0 murriztu ziren



Eustaten arabera, **irailean, Euskadiko azalera handietako eta elikadura kate handietako salmentak %1,0 murriztu ziren urte batetik bestera.** Elikagaien salmentak (%-1,1) eta gainerako produktuenak (%-0,8) jaitsi egin ziren urte artean. Bestalde, langile okupatuak %1,2 gutxitu ziren.

Iturria: Eustat.

Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila